

Probintziako Egitasmoa

2009-2014 Lerro estrategikoak

Bilbon, 2009ko urrian

Jesusen Lagundiaren Loiola probintziak, 2003 eta 2005 urte bitartean landu zuen Probintziako Proiektua. Lehenbizi, misioa, ikuspegia eta funtsezko aukeren testua definitu zuen, Probintziaren hurrengo urteetarako jarduera lerroak zehaztu nahirik. Gerora, proiektuaren lehen testuetan planteatutakoa burutzen lagundu duten lerro estrategikoak, helburuak eta jarduerak zehaztu ziren.

2008-2009 ikasturtean, proiektuaren azterketa egin zen urte hauetako esperientziaren haritik eta ospatu berri den 35. Kongregazio Orokorraren argira. Jesuita komunitateek, obretako apostoluzta-komunitateek, eta baita nagusiek eta zuzendariak ere, ekarpenak egin dituzte horretarako egin diren zenbait topaketatan, bai aurreko urteetan egindakoa ebaluatzerakoan, eta baita aurrean ditugun erronka apostolikoei eta eman nahi ditugun erantzun apostolikoei buruz ere.

Taldeko diszernimendu honen emaitza dira orain aurkezten ditugun, eta Probintzia Proiektu honen bigarren faseari ekiteko diren lerro estrategikoak, helburuak eta proiektuak. Iruditzen zaigu, gure baterako zeregina adierazten duen sentimendu partekatua jasotzen dugula eta aberasteko balioko duela, eta baita gure lan-dinamika ugaria ebaluatzeko ere gerora.

Prozesu hau, Espainiako Jesuita Probintzien arteko bateratze prozesuaz egiten ari garen diszernimenduarekin batera doa. Planteamendu hau ere baterako misio eta ikuspuntuaren definitiotik abiatzen da, gerora ekintza lerro eta proposamenetan bilakatuko dena. Bateratze prozesutik letozkeen lerro eta aukera hauek, aintzat hartzeko osagaiak izango dira eta urtero geureganatzekoak gure probintzia proiektuan.

Proiektuaren berritze honetan hiru lerro estrategiko planteatzen ditugu. Lerro hauek ez dira lan eta bizitza eremu itxiak edo independenteak, edo elkarren artean harremanik gabeak. Proiektu eta jarduera ezberdinak antolatze modua da, urte hauetan, hasiera batean definitu genuen ikuspuntura hurbiltzeko, gure misioak eta funtsezko aukerak mantenduz. Era honetan, **pertsonak, erakundeak eta sektoreartekotasuna**, hiru arreta-gune dira helburuak eta proiektuak definitzen laguntzeko, Kristoren misioari, gure inguruko erronka apostolikoei erantzunez, Jesusen Lagundi gisa zerbitzu ematen lagundu diezaguten.

1. lerro estrategikoa: Misiorako pertsonak

Lerro estrategiko honen bidez, Probintziako Subjektu Apostolikoa osatzen eta sendotzen lagunduko duten prestakuntza prozesuetan, pertsoneri eta taldeei lagundu nahi diegu. Jesuita komunitateen bizitza ere berritu nahi dugu, beren karismarekin leial izanez.

1. helburua. Misioan inplikaturako pertsoneri laguntza eman.

1. proiektua. **LAGUN-EGITE** PLANA, MISIOAN INPLIKATURAKO PERTSONERI.
2. proiektua. PROBINTZIAKO **PRESTAKUNTZA** PLANA IGNAZIOTAR NORTASUN ETA MISIOAN.
3. proiektua. **PRESTAKUNTZA** PLANA **IGNAZIOTAR LIDERGOAN**.

Lehen helburuarekin misioan inplikaturako pertsoneri, laikoak zein jesuitak, emandako laguntzak definitu eta egituratu nahi ditugu. Pertsonak prestatu eta haiei laguntza ematea, ez dira arduradunek beren zereginenez gain egin beharko dituzten langintzak, baizik lidergoa emateko eran behar duten jarreraren parte izan nahi dute. Lidergoa emateko era ignaziotar horrek egitura egokia eta berariazko prestakuntza behar ditu. Helburu hau, komunitate apostolikoak sendotzeko eta Probintziako Subjektu Apostolikoa sortzeko helburuei loturik dago.

Azken urte hauetan, Probintzian, ahalegin epezifiko garrantzitsuak egin dira ignaziotar nortasunean eta misioan prestatzerakoan. Zenbait sektoretan, lehendik zeudenei gehitu zaizkie hauek, baina esperientziaren neurria gehitu zaie, ikuspegi globalarekin eta Jesusen Lagundi gisa partekatutakoa, sektore apostoliko bakar batekoa baino gehiago. Aurrez zeuden esperientzietan, misioan inplikaturako pertsonen lagun egite plana gehitu zaie, eta prestakuntza plana ignaziotar lidergoan, besteen lidergoan aritzeko zerbitzua ematen dutenen eskari espezifikoei erantzun ahal izateko.

2. helburua. Jesuita komunitateen bizitza eta misioa biziberritu.

4. proiektua. **KOMUNITATE PROIEKTUAK** BERRIZTATU ETA HAIEI JARRAIPENA EGIN.
5. proiektua. **GURE BIZITZAKO ZENBAIT NEURRITAN** SAKONDU 35KO-AREN ETA PROBINTZIAKO PROIEKTUAREN BAITAN.

Jesuitek misioan parte hartzen badute ere, eta beraz lerro estrategiko honen lehen helburuak bete betean harrapatzen ditu, lerro estrategiko honetako bigarren helburua, zuzenago kokatzen da jesuita-komunitateetan, hauen bizitzan eta misioan. Jesuita-komunitatea apostolikoa da, misioaren parte da komunitate bizitza bera ere, eta beraz, hori zaindu eta dinamizatzekeo helburua planteatzen diogu geure buruari.

Probintziako Proiektu honen lehen fasean, komunitate-proiektuen lehen lanketa egin zen. Horiek berritu eta jarraipena egitea, fase berri honetako zeregina da, kasu bakoitzean, egoera bakoitzaren berezitasunen arabera.

Gainera, badaude gure bizitzako zenbait neurri, 35. Kongregazio Orokorraren eta probintziako proiektuaren beraren argira, indartzea merezi dutenak: jesuita bokazioaren **eliz neurria; berradiskidetze** kultura eragitea gure komunitateetan, eta berorien bidez; jesuitek duten zeregina, misioan eta **komunitate apostolikoetan lagun egiterakoan; immigrazioaren** erronkei erantzuteko ekimenak; gure komunitateetako **jende nagusiaren eta gaixoen** arreta; jesuiten inkulturazio handiagoa, **euskaran eta euskal kulturaren**.

2. Ierro estrategikoa: Misiorako erakundeak

Pertsonak osatzen dute gure misioaren funtsezko ardatza. Alabaina, Lagundiak bere inguruarekin duen konpromisoaren zati handia, erakunde apostolikoetan, eta hauen bidez, egiten da, fruitu egonkorragoa eta irismen handiagokoa bilatuz. Ierro estrategiko honen bidez, Lagundiaren misioa partaidetzan egindako zerbitzua berritzen eta sakontzen duten dinamikak sustatu nahi ditugu, Lagundiaren erakundeetan.

3. helburua. Obren ignaziotar izaera sendotu

6. proiektua. **KOMUNITATE APOSTOLIKOAK** SENDOTZEA JESUITEN ERAKUNDEETAN.

7. proiektua. **IGNAZIOTAR ESPIRITUALTASUNA** ERAKUNDEAN ZEHAR-ARDATZ GISA.

Proiektu honen intuizioetako bat, eta denborak berretsi duena, Probintziako erakundeen ignaziotar izaera sendotzeko premia izan da, honen nortasuna eta berriazko misioa berrituz, berriro hausnartuz eta sendotuz.

Obretan, nortasun eta misio hori berriztatzen eta sendotzen berriaz lan egin dezaketen komunitate apostolikoak sortu dira. Komunitate hauek elikatu egin behar dira, eta erakunde bakoitzaren benetako martxan inplikatzera bultzatu, eta baita probintziako baterako subjektu apostolikoa sortzen izan behar duten eginkizunean ere.

Aldi berean, bultzatu eta indartu behar diren ekimenak egin dira, ignaziotar espiritualtasuna erakundeen zehar-ardatz izatea lortzeko. Bide honetan bultzatu zen, baterako otoitz diszernimendua, eta ohiko antolakuntzaren kultura integratzea bilatzen da. Halaber, obretako pertsonentzat egindako espiritualtasunari buruzko berriazko dokumentu batek, lagun dezake esandako helburu honetan.

4. helburua. Obren ebaluazio apostolikoa sistematizatu

8. proiektua. **EBALUAZIO APOSTOLIKOA.**

Probintziako proiektu honek urratsak eman dituen beste osagaietakoa, baina nabarmen sakontzea merezi duena, dinamiken eta erreminten eremua da, erakundeen jesuita izaeraren ebaluaziorako. Hau, Lagundiaren titulartasun eta jesuita kopuruaren presentzia hutsetik haratago doa; eta 35. Kongregazio Orokorrean berretsitako fedea – justizia – elkarriketa, misioarekin zuzenean lotuta dago.

Ebaluazio apostolikoaren eremu berri hau beste ebaluazio eta zuzentzauekin bateratu behar da, erakunde bakoitzak dagoeneko egiten dituenak edo egin behar dituenak. Kanpoko kontrol-mekanismo hutsa izan gabe, fedea zabaltzeko eta justizia sustatzeko misiorako, garrantzitsuak diren helburuen eta adierazleen formulazioa eta ebaluazioa eragiteko gune izan behar dute, erakunde bakoitzean. Landu da Lagundiko obren ezaugarri propioen lehen aldaera, Lagundiaren misioan duen ekarpena neurtzeko tresna gisa. Hau aberastea eta, gure baterako misioaren inguruan, gogoeta eta ebaluazioa partekatzeko dinamikak eragitea da dugun erronka.

5. helburua. Gure erakundeen zenbait neurri esanguratsu indartu 35KO-aren argira.

9. proiektua. GURE OBRETAKO ZENBAIT **NEURRI ESANGURATSU** INDARTU 35KO-AREN ARGIRA

Aurreko helburuek aipatzen dituzten ignaziotar izaera honen eta ebaluazio apostolikoaren edukia, neurri handian 35KO-aren intuizioen eta gure institutuko zenbait testuren bidez dago zehaztua. Gainera, Probintziako Proiektu honen (misioa / ikuspuntua / funtsezko aukerak) testuaren esparruan daude adierazita.

Indartu beharreko zenbait neurri dira: erakundeen **eliz eta konfesionaltasun neurria**; gizarte erantzukizuna, iraunkortasuna eta justizia irizpideak **baliabideen** erabileran (inbertsioak, ekologia, etab.); **berradiskidetze** kulturari egindako ekarpena norbere espezifikotasunetik, erakunde gisa; **hizkuntza normalkuntza**; arreta **immigrazioaren** erronkei.

3. Ierro estrategikoa: Sektoreartekotasuna

Lerro estrategiko honekin, pertsonen, komunitateen eta obren gorputza, eratu eta ikusarazi nahi dugu, bere aniztasunak aberasturik eta ignaziotar espiritualtasunean oinarriturik, justizia eta senidetasuna bizi eta sustatzen dituen eta Jesukristo, gaur egun, esanguratsu egin nahirik ari dena. Erakunde eta antolaketa ezberdinetatik egiten dugu hori, bakoitzak bere ekarpena eginez, presentzia ezberdinetatik lortzen diren sinergietatik, geu aberastuko garen, eta gure lanaren fruitua handiagoa izango den kontzientziarekin.

6. helburua. Probintzian egitura apostolikoa eta lidergoarena egokitu.

10. proiektua. PROBINTZIAREN **EGITURA ETA LIDERGOA** EGOKITU ERRONKA BERRIEN AURREAN.

Erronka apostoliko berriek eta probintzien bateratze prozesuak, berriro pentsatzeko eskatzen dute, Probintziaren oraingo egitura eta lidergoa. Gure baterako proiektuan, erantzunkidetasunean hazi gara, baina gehiago sakondu beharra daukagu. Sartu dugu zenbait foro eta batzorderen agendan, gure baterako misioaren gaineko gogoeta. Baditugu zenbait erakunde, Probintziako helburuak aurrera eramaten laguntzen dutenak: ministerioen batzordea, nagusi eta zuzendari-taldeak, sektorekako batzordeak, sektorearteko batzordeak, probintzia mailakoak, etab. Hauetako zenbait erakundek ibilbide luzea dute, besteak berriagoak dira, berriro pentsatu beharko da beren egitekoa, funtzionatzeko era, premiak, etab., pertsonen inplikazio eta eraginkortasun apostoliko handiagoren bila.

7. helburua. Sektorearteko proiektu apostolikoak garatu.

11. proiektua. PRESTAKUNTZA, **JESUSEN ESPERIENTZIATIK BIZITZEKO** (GAZTE HELDUENTZAT).

12. proiektua. PROBINTZIako SAREA **IMMIGRAZIOAREN** INGURUAN.

13. proiektua. **BOKAZIO PASTORALTZA** PLANA BERRITZEA.

14. proiektua. **LOIOLA ETA XABIERKO SANTUTEGIETAKO** PROIEKTU APOSTOLIKOA INDARTZEA, PLATAFORMA APOSTOLIKO GISA.

Gure errealitateak, fede eta justiziaren zenbait erronka korapilatsu planteatzen ditu, gure karismaren arabera erantzun behar ditugunak. Probintziako proiektuaren ebaluazioak eta gure erantzun apostolikoari buruzko diszernimenduak, zenbait arlo aukeratzera eramán gaitu, eta horietan sektore-arteko jarduera, sektore apostoliko ezberdinak inplikatu, beharrezkoa eta garrantzitsua da une honetan, Jesus, gaur egun, pertsonen bizitzarako eta gizarterako, garrantzitsua denaren testigantza sinesgarria emateko.

8. helburua. Probintziaren komunikazio-plana garatu.

15. proiektua. **KOMUNIKAZIO-PLANA**

Sektorearteko eta osoko ikuspegi batetik, beharrezkoa da komunikazio gehiago izatea, obren eta sektoreen artean, komunitateen eta pertsonen artean, gure presentzia apostolikoa indartzeko. Barne-komunikazioa eta kanpo-komunikazioa, gure eguneroko jardunean, aintzat hartu eta integratu beharreko bi eremu dira. Internetek joka dezake bere papera, subjektu apostolikoaren eraketaren eta erreminta apostoliko eguneratuaren lagungarri gisa.